Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Ramon Gerra Zubillaga

Donostia, Gipuzkoa (1938)



Aurkibidea

Biografia



Hernanin jaio zen, baina hilabete gutxi zituela Donostiara joan ziren bizitzera, Egia auzora. Aitak, Astigarragakoa bera, arotzeria jarri zuen etxe azpian. Ama egiatarra zen, Etxetxo baserrikoa. Lau senide ziren. Karmengo Ama kalean bizi ziren. Giroa erabat erdalduna zen kalean, eta berak ere erdaraz egiten zuen. Mojetan ibili zen eskolan hasieran, Ametzagañan, eta gero La Sallen, 14 urte bete arte. Orduan aitarekin hasi zen arotz lanetan; iluntzeetan Arte eta Ofizio eskolara joaten zen. Gero, ardo-denda jarri zuen. Erostera ez ezik edatera ere joaten zen jendea dendara; ogitartekoak ere ematen zituzten. Goierriko emakume batekin ezkondu zen, eta lau seme-alaba izan zituzten.

Zintak

DON-092

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Data**: 2010-03-10
- **Iraupena**: 91 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Etxeberria, Idoia

Pasarteak

1. Lau hilabeterekin Egiara bizitzera

- **Erref**: DON-092/005
- **Iraupena**: 0:01:37. **Hasi**: 00:01:13. **Bukatu**: 00:02:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Hernanin jaioa, lau hilabeterekin Donostiara joan ziren. Aitak aroztegia jarri zuen Egian, Karmengo Ama kalean, koinatuarekin. Ama Egiako Etxetxo baserrikoa zen, eta aita Astigarragakoa.

2. Lehengo Egia, desberdina; Karmengo Ama kalea

- **Erref**: DON-092/006
- **Iraupena**: 0:01:48. **Hasi**: 00:02:50. **Bukatu**: 00:04:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:
Egia oso desberdina zen. Askoz etxe gutxiago zeuden. Ateak sokari tira eginda irekitzen ziren. Egiako lantegiak: marmola, Lizarribar goma lantegia... Tailerrak ere bazeuden.

3. Portaletan, zapatariak; galtzerdi konpontzaileak

- **Erref**: DON-092/008
- **Iraupena**: 0:02:23. **Hasi**: 00:04:51. **Bukatu**: 00:07:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:
Portal askotan zapata konpontzaileak zeuden Egian, gehienak galiziarrak. Galtzerdiei puntuak hartzen zizkietenak ere bazeuden, "karrerak" konpontzen zituztenak.

4. Karmengo Ama kaleko negozioak

- **Erref**: DON-092/009
- **Iraupena**: 0:00:58. **Hasi**: 00:07:14. **Bukatu**: 00:08:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:
Karmengo Ama kaleko negozioak. Mekanikoak, arotzeriak, marmola... tabernak eta dendan. Jakatarrak. Umeek errepidean jolasten zuten, autorik ez zelako ibiltzen. Lau senide ziren.

5. Umetako ibilerak: gaiztakeriak, txoritan eta bainatzen

- **Erref**: DON-092/011
- **Iraupena**: 0:02:38. **Hasi**: 00:08:33. **Bukatu**: 00:11:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Natura » Fauna » Hegaztiak

Laburpena:
Umetako gaiztakeriak. Fruta lapurtzen zuten baserrietan. Txoritan ere ibiltzen zen, erreklamoan, kanposantu ondoan. Txori arrak saldu egiten zituzten, eta emeak askatu. Loiolara joaten ziren bainatzera, baina baserritarrek bidali egiten zituzten. Gatza botatzen zieten, kartutxoak.

6. Ikasten mojetan eta fraideekin

- **Erref**: DON-092/012
- **Iraupena**: 0:03:11. **Hasi**: 00:11:11. **Bukatu**: 00:14:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:
Eskolan mojetan ibili zen eta gero Los Angelesen, San Juan kalean (La Salle). Moja frantziskotarrak ziren. Bost-sei urte arte ibili zen mojetan. Los Angelesen, baloiarekin jolasten ibiltzen ziren. Astero mezetara joaten ziren eskolatik, San Bizentera. Egian ere joaten ziren mezetara. Ejerzizio espiritualak beldurgarriak ziren.

7. Giro erdalduna kalean

- **Erref**: DON-092/014
- **Iraupena**: 0:01:17. **Hasi**: 00:15:16. **Bukatu**: 00:16:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Dotrina ere erdaraz ikasi zuen. Frantziskotarrak jakingo zuten, baina ez zuten erabiltzen. Dena zen erdaraz. Etxean euskaraz egiten zioten, baina berak erdaraz erantzun.

8. Errazionamendu garaia; estraperloa

- **Erref**: DON-092/016
- **Iraupena**: 0:02:59. **Hasi**: 00:16:43. **Bukatu**: 00:19:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Gerraosteko errazionamendua. Bera joaten zen janari bila. Ogi beltza. 2. mailako kartila zuten. Bidean jaten zuen ogia. Estraperloko ogia ere izaten zen, zuria. Kamioiarekin ibiltzen zen osabak ere ekartzen zien ogia. Aitak Astigarragatik ekartzen zuena, ezkutatuta, "guardavinoek" ez harrapatzeko. Taloa egiten zuten, baina ez zaio gustatzen. Txokolatea ere zakarra zen.

9. Amaren baserrikoak plazara joaten ziren, tratuarekin

- **Erref**: DON-092/017
- **Iraupena**: 0:02:24. **Hasi**: 00:19:42. **Bukatu**: 00:22:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:
Amaren baserrira joaten ziren esne bila. Haiek saldu egiten zuten, etxez etxe eta San Martin plazan. Tabakalera parean ere "guardavinoak" izaten ziren, eta kobratu egiten zuten. Postua ere ordaindu egin behar. Zaldikarroa izan aurretik, oinez ibiltzen ziren, zesterak buru gainean jarrita.

10. Arropa garbitzera labaderora eta errekara

- **Erref**: DON-092/018
- **Iraupena**: 0:01:21. **Hasi**: 00:22:06. **Bukatu**: 00:23:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:
Arropa garbitzeko, labaderoa zegoen. Errekan bestela; amak kontatzen zion urtetatik ateraz gero ezin zirela berriz sartu. Loiolan ere bazen labadero bat.

11. Aroztegian, baita egurrezko maletak ere

- **Erref**: DON-092/021
- **Iraupena**: 0:02:24. **Hasi**: 00:24:28. **Bukatu**: 00:26:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:
Arzotegian maletak ere egiten zituen aitak. Baita kutxak ere; asko joaten ziren Ameriketara. Amarako Calderon dendan erosten zuen egurra. Konponketak egiten zituen, eta baita altzariak ere. Dena egurrezkoa zen lehen. Pinua eta makala erabiltzen zituen.

12. Zinemara joaten zen, eskolatik piper eginda

- **Erref**: DON-092/022

- **Iraupena**: 0:03:54. **Hasi**: 00:26:52. **Bukatu**: 00:30:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Arotzak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:
Aitarekin hasi zen arotz lanetan, 15 urterekin. Urdaneta kalera joaten zen iluntzeetan, Artes y Oficios ikastera. Piper egiten zuen batzuetan, eta zinemara joaten zen, Bellas Artesera (Urbieta kalera). "Sesión continua". Zentsura zegoen. Pelikula berde samarrak Hendaian ikusi behar ziren. Orduko zinema aretoak aipatzen ditu.

13. Dantzara batera eta bestera

- **Erref**: DON-092/023
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 00:30:46. **Bukatu**: 00:33:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Pasaiara joaten ziren dantza egitera. Udan Hernanira, neguan Errenteriara... Trenez joaten ziren normalean. Dantza egiteko mutilek ordaindu egin behar zuten, Hernanin. Pasealeku Berriko erromeria.

14. Neska eta mutilak aparte

- **Erref**: DON-092/025
- **Iraupena**: 0:01:34. **Hasi**: 00:33:36. **Bukatu**: 00:35:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Neskak eta mutilak aparte joaten ziren dantzaldietara, eta bueltatu batzuetan elkarrekin. Neskari etxeraino laguntzeko konfidantza handia izan behar zen. Neskek ez zuten ardorik edaten, tabernara sartuta ere. Parte Zaharrean ibiltzen ziren gehien.

15. Egiako sagardotegiak

- **Erref**: DON-092/026
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:35:10. **Bukatu**: 00:37:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:
Sagardotegietara etxean prestatutako ogitartekoarekin joaten ziren. Toka jokoa Egian ere bazegoen, Eizmendi sagardotegian. Bolatokia ere bazeukan. Etxabe sagardotegia zegoen parean.

16. Bainatzera, arroketara eta Loiolara

- **Erref**: DON-092/028
- **Iraupena**: 0:00:40. **Hasi**: 00:37:05. **Bukatu**: 00:37:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak

Laburpena:
Hondartzara gutxi joaten ziren. Arroketara gehiago, Uliara; mendi irteerak. Loiolan ikasi zuen igerian.

17. Kilkerrak etxera

- **Erref**: DON-092/029
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:37:45. **Bukatu**: 00:39:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna

Laburpena:
Kilker bila ibiltzen ziren, etxera eramateko. Kilker kaiolatxoak egiten zituen aroztegian.

18. Auzoko jaiak

- **Erref**: DON-092/031
- **Iraupena**: 0:01:56. **Hasi**: 00:39:42. **Bukatu**: 00:41:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak

Laburpena:
Auzoko jaiak madalenetan izaten ziren. Asto karrerak, erromeria... Asto lasterketan Egiako baserritarrek hartzen zuten parte. Kotxe gutxi zebiltzan, eta kalean egiten zituzten. Kalabazinak hustu eta argia jartzen zieten, jendea beldurtzeko.

19. Umeak beldurtzeko trikimailuak

- **Erref**: DON-092/032
- **Iraupena**: 0:01:11. **Hasi**: 00:41:38. **Bukatu**: 00:42:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:
San Juan sua egiten zuten, "tierras falsas" esaten zieten tokian: Altuna marmol lantegiko makinek hondarra botatzen zuten han, eta berez debekatuta zuten sartzea. Lurrak irentsiko zituela esaten zieten. "Sacamantecas"ekin ere beldurtzen zituzten.

20. Serenoa eta faroleroak

- **Erref**: DON-092/035
- **Iraupena**: 0:02:07. **Hasi**: 00:44:10. **Bukatu**: 00:46:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Udal langileak

Laburpena:
Anjel serenoak portal guztietako giltzak zituen. Uniformea zeraman. Faroleroak ere baziren, farolak pizteko; Mundaizko bidean eta Tabakalera parean gasezko farolak zeuden.

21. Tabakaleran, langile mordoa

- **Erref**: DON-092/036
- **Iraupena**: 0:02:43. **Hasi**: 00:46:17. **Bukatu**: 00:49:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Ohiturak eta bizimodua » Bizioak

Laburpena:
Tabakaleran jende asko zebilen lanean. Ordutegia. Tabakalerako ordularia entzuten zuten. Ducados egiten zuten azken urteetan; aurretik, Ideales, Porras...

22. Gabardina lantegia eta marmol lantegiak

- **Erref**: DON-092/037
- **Iraupena**: 0:01:34. **Hasi**: 00:49:00. **Bukatu**: 00:50:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:
El Huracan tailerrean, Baztan kalean, 200 bat langile zeuden, gabardinak egiten. Emakume asko zebilen han. Marmola egiten zuten lantegiak aipatzen

ditu: altuna, Agirre, Eguren, Gonzalez... Cantabriak bakarrik segitu du, Astigarragan.

23. Polloeko kanposantura, zaldi-karroak

- **Erref**: DON-092/041
- **Iraupena**: 0:02:36. **Hasi**: 00:53:08. **Bukatu**: 00:55:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:
Parte Zaharretik ekartzen bazuten hilkutxa, zubiraino joaten ziren, eta familiak dolua egiten zuen han. Grosekoek Tabakaleraraino, eta bertakoek kanposanturaino. Bizkar gainean eramatea ez du ezagutu berak. Dolu garaian ezin zen dantza egin, ezta zinemara joan ere. Lutoa: emakumeak beltzez jantzita. Kanposantuko loreen negozioa.

24. Ospakizunak

- **Erref**: DON-092/043
- **Iraupena**: 0:01:39. **Hasi**: 00:55:54. **Bukatu**: 00:57:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:
San Sebastian eguna ez zuten ospatzen. Aste Nagusian, Ama Birjinaren egunean bazkaria egiten zuten etxean. Bulebarra urruti zegoen beraientzat. Loiolara joaten ziren merendero batera, etxetik janaria eramanda, egunpasa. Merendero asko zeuden. Antxoene merenderoa zegoen Egian.

25. Egiako sagardotegiak

- **Erref**: DON-092/044
- **Iraupena**: 0:01:23. **Hasi**: 00:57:33. **Bukatu**: 00:58:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Baserri asko desagertu dira. Egian hiru gogoratzen ditu. Sagardotegiak: Faustino, Etxabe... Kamioietatik sagarrak lapurtzen zituzten.

26. Elizaren indarra

- **Erref**: DON-092/046
- **Iraupena**: 0:01:28. **Hasi**: 01:00:21. **Bukatu**: 01:01:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:
Acción Catolica bazegoen. Adoración Nocturna ere bai: hilean behin gaua elizan pasatzen zuten. Neskak gogo-jardunak egitera joaten ziren Loiolara, Arantzazura...

27. Ardo dendako kontuak

- **Erref**: DON-092/050
- **Iraupena**: 0:02:36. **Hasi**: 01:04:59. **Bukatu**: 01:07:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:
Ardo denda jarri zuen. Bartzelonan ikusi zuen. Dendan eta aroztegian, bietan egoten zen. Errioxatik ekartzen zuen ardoa, gehiena granelera saltzeko. Barrikak zituen; kamioia etortzen zen, betetzera. Lau ardo mota zituen.

28. Ardo dendako kontuak II

- **Erref**: DON-092/052
- **Iraupena**: 0:02:34. **Hasi**: 01:07:47. **Bukatu**: 01:10:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:
Anisa granelera saltzen zuen, ardo dendan. Patxarana egiteko erabiltzen zen batez ere. Edateko ohiturak aldatu egin dira. Ardo dendan txikiteoa ere ematen zuten.

29. Ardo dendako kontuak III

- **Erref**: DON-092/054
- **Iraupena**: 0:00:56. **Hasi**: 01:10:28. **Bukatu**: 01:11:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:
Donostiako ardandegiak aipatzen ditu. Bodega Donostiarra.

30. Kantatzeko ohitura

- **Erref**: DON-092/060
- **Iraupena**: 0:01:02. **Hasi**: 01:17:37. **Bukatu**: 01:18:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:
Kantzateko ohitura. Etxerako bidean kuadrillak kantuan erretiratzen ziren, eta etxean kantatzea ere ohikoa zen. Ohitura hori galdu egin da.

31. Irratia jarri zutenekoa

- **Erref**: DON-092/062
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 01:19:25. **Bukatu**: 01:20:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia

Laburpena:
Irratia 12 bat urte zituela jarri zuten. Radio Pirinaica entzuten zuten gauez, ezkutuan. Antena jarri zuten sukaldean, irratia hobeto entzuteko.

32. Zezen plazako jendea

- **Erref**: DON-092/064
- **Iraupena**: 0:00:35. **Hasi**: 01:21:39. **Bukatu**: 01:22:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Zezenak

Laburpena:
Zezenetara jendea dotore joaten zen. Gizonezkoak trajearekin. Jendea ikustera joaten ziren beraiek, Grosera.

33. Zezen plazako jendea; udatiarrak

- **Erref**: DON-092/066
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 01:22:32. **Bukatu**: 01:23:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Zezenak
- Aisia » Oporrak

Laburpena:
Eskailera azpira joaten ziren Txofre zezen plazako jendea ikustera. Zaldi-karroak eta autoak, dotore-dotore. Madrilgo eta Zaragozako jende asko etortzen zen udan; zerbitzariak ekartzen zituzten.

34. Franco Donostiara joaten zen

- **Erref**: DON-092/068
- **Iraupena**: 0:02:46. **Hasi**: 01:23:51. **Bukatu**: 01:26:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:
Franco urtero joten zen Donostiara. Batzuk kartzelan sartzen zituzten aldiuro. Guardia mairuak ekartzen zituen Francok. Bitxidenda batzuk itxi egiten zituzten, Francoren emazteak ez zuelako hartutakoa ordaintzen. Segurtasun neurri handiak izaten zituen Francok.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-25

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com